

5

artikulua

EKONOMIA

LAUDIO ENERGIA XXXII



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Nondik dator eta nondik sortzen da kontsumitzen dugun energia?

Gaur egun kontsumitzen dugun energiaren zatirik handiena dator erregai fosilak erretzetik, hala nola ikatza, petroleoa eta bere deribatua. Prozesu horrek gasak eta partikulak sortzen ditu atmosfera kutsatzen dutenak. Geure etxeetako argindarrak hornitzen gaituzten zentrale nuklearrek hondakin oso kutsagarriak sortzen dituzte eta oso arriskutsuak dira.

Erregai fosilak naturako baliabide ordezkak ezin dira, hau da, gaur eguneko baliabide horien ustiapen erritmoa jarraituz gero, denbora oso laburrean agortuko ditugu planetako erreserbak.

Derrigorrekoa da behar diren alternatibak aztertzea eta portaera pertsonal egokiak hartzea une honetan energiaren ekoizpenak eta erregaien kontsumoak sortzen duten inpaktu eta eragin horren basatia gutxiarazteko.

energiaren kontsumoa Laudion

Nahiz eta energiaren arazoak geure udalerraren mugez harandikako dimentsioa izan, herrian bertan, baita ere, arazoa konpontzen laguntzeko programak eta neurriak hartzea erabaki daiteke. Funtsezkoa eta oinarritzkoa da energia aurrezkoa, hala Udalaren aldetik bere instalazioetan eta kaleko argiterian, nola herritarraren aldetik bere etxebizitzan.

Beste lan ildo garrantzitsua da bultzatzea herriko bertako energia ekoizpena eta beste energia berriztagarri batzuen garapena erraztea eta laguntzea.

Laudion, hala bizitegi sektorean nola industriakoan eta zerbitzuetakoan elektrindarraren energia kontsumoak, azken hiru urte hauetan bakarrik, urte bakoitzeko % 10 baino igoera handiagoak izan ditu. Eta, kontuan izan, udalerriko energia kontsumoaren ia % 100 kanpotik datorren energia iturrietatik lortzen dela eta ez dagoela egon, ez eta ere, energia berriztagarrien instalaziorik.

aholkuak**Hona hemen, aholku batzuk:**

- Erabili kontsumo gutxiko bonbilak eta etxeko elektratesna ekologikoak (ez dute horrenbeste kutsatzen, gehiago irauten dute eta berziklatu ahal dira)
- Argia amatatu, itzali, ez baduzu gehiago behar; aprobetxatu argi naturala.
- Gasal gutxiago kontsumitzen du izozkailu, sutegi, labe eta berokuntzan elektrindarraren aldean.
- Etxeko isolamendua zaindu, zigilatu ate-leihoak goma-espumako zinta eranskailuz.
- Uda berotzeko erreguladorea 60 gradutan ipini. Hotz-bero, tenperatu horretatik gorantza, energia galtzen da.
- Sukaldatzen duzun bitartean lapiko, kazola, e.a. estali.

Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Energiaren kontsumoa gutxitzea
- Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea

Laudioren Jasangarritasunerako ekintza plana



Laudion zer egin da?

Azken urte hauetan, eraikin propioetan eta udal zerbitzuetan ekimen ezberdin batzuk eramaten ari dira aurrera.

Energiaren aurrezkia eta eraginkortasun irizpideak ohiko funtzionamenduaren barruan txertatuz: horrela, 14 argi-fluxuaren egonkortzaile-gutxitzaile instalatu dira, ipinitako instalazioetan % 43-45 energia aurrezkia lortu izan delarik.

Laudion zer falta da egiteko?

- **Udal eraikinetako barruko argiketa sistemen optimizazioa eta kaleko argiteriakoa kontroleko ekipo eta sistema eraginkorragoen bidez.**
- **Energia berriztagarrien ezarpena eta garapena aztertzea**

Laudioko Udala, Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) lankidetzan, azterlantxo bat egingo du udalerrian aztertzeko zein aukera dagoen herrian energia berriztagarriak ezarri eta garatzeko. Zentzu horretan, Laudioko Udala aztertzen ari da Granja Kiroldegian Energia Fototermikozko instalazio proposamen bat eguzkiaren energia aprobetxatzeko berokuntza erabileratarako, eta kasu honetan, hain zuzen, ur beroa eta berogailua ekoizteko iturri gehigarri legez.

- **Energia aurreztu eta energia eraginkortasunari buruz herritarren artean praktika eta ohitura onei buruz informatzea.**

Energia iturrien arazoaren aurrean erantzuna eman beharra ez dago ekintza ofizial edo erakundeen esku bakarrik. Pertsona bakoitzak badu erantzukizun kuota garrantzitsua ingurugiroan energiaren kontsumoak sortzen duen eragina eta inpaktua gutxiarazteko. Beraz, Laudioko Udalak, konpromisoa hartu du informazioa emateko energia eta, baita ere, dirua, aurrezteko bide izan daitezkeen praktika eta ekimen onei buruz.

Zerbait egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildurraren seigarren alea. Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.